

INFORMAZIO PANELA HIZTUNAK ETA HIZKUNTZAK



DBH1 Hizkuntzen Trataera Baturako materialak

Berritzeguneak
Araba - Bizkaia - Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

HIZKUNTZEN TRATAERA
BATERATURAKO MATERIALAK
1. DBH

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

AZALPEN TESTUAK

Azalpen testua ikas-irakaskuntza prozesuetan edukiak transmititzeko bide nagusietako bat da. Beraz, testu tipu honen produkzioan trebatu behar ditugu ikasleak ikasketa prozesua behar bezala burutu, eta kontzeptu eta eduki berriak era egokian bereganatuko badituzte.

Ez dugu ahaztu behar, azalpen testua erabat lotuta dagoela edukiak eta kontzeptu berriak ikastearekin eta berebiziko garrantzia izango duela informazioaren muinera iritsi eta berori egoki jaso eta transmititzeko. Horregatik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, testu tipu hau urterik urte landuko da, testu genero ezberdinen bidez.

Azalpen testuak lantzeko beroriek sortzen diren testuinguruaren analisia egitea funtsezkoa izango da eta horretaz gain, ikasleek egiturari eta testu barruko ezaugarriei ere erreparatu beharko diete; izan ere ezaugarri horiek ikasketa esparruan burutuko duten lanarekin lotura zuzena dute eta hizkuntza-trebetasun bereziak behar dituzte, beste testu tipu batzuen bidez ikasiko ez dituztenak.

Testu tipu honetan gaitasun komunikatiboaren barruko lau azpi-gaitasunak landuko dira, hau da, gaitasun soziolinguistikoa, diskurtsiboa, linguistikoa eta maila apalagoan bada ere, gaitasun estrategikoa.

1. DBHrako proposatzen dugun proiektu honek Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ildoari eusten dio. Horrenbestez, ikasleek testu bi genero ezberdin landu eta gauzatuko dituzte, edukiak eta trebetasunak gaztelania eta euskara arloen artean banatuko direlarik.

1. DBH

KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

"Hiztunak eta hizkuntzak" Hizkuntzen arloko Oinarrizko Curriculum Diseinuan garrantzi handiko gai. Curricularra izateaz gain, gaurkotasan handikoa ere bada.

Gai horren inguruan batzen dira, gaur egun, geure euskal eskolak dituen erronkarik handienetarikoak.

Alde batetik, hiztun elebidunak izatetik, hiztun eleanitzak izatera heltzea; beti ere, prozesu horretan geure euskal identitatea galdu gabe, eta bestetik, gaur eguneko eskola-elkartearen errealitate eleanitza geureganatzea

Bestalde, gai honek, aukera ematen digu hiztunen eta hizkuntzen aldeko jarrerak hobetzeko, besteak beste, hizkuntza eleaniztasuna baloratzea, hiztunen eskubideak errespetatzea, eta euskal gizarteko eremu guztietan euskaren erabilpena normalizatzea.

Bi ekoizpen gauzatuko dira: H1ean "Hiztunak eta hizkuntzak" izenburu duen Informazio-panela, eta H2an, hiztunak eta hizkuntzei buruzko ahozko azalpena

PROIEKTUAREN ARDATZ KOMUNA

Tipoa : Azalpen testua

Eremua : Ikasketako hizkuntza

Gaia : Hizkuntzak eta hiztunak

HELBURU OROKORRAK

- Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak bereiztea eta erabiltzea.
- Erabilpen eremuak bereiztea
- Inguru hurbileko errealitate soziolinguistikoa aztertzea eta ulertzea
- Gizarteko hizkuntza-aniztasuna onartzea, eta horrek dakarren aberastasuna baloratzea.
- Hizkuntzen ikaskuntzan, transferigarritasuna baloratzea.
- Ezagutza berrien jabetzan, lengoia tresna bezala baloratzea

Lan proposamen honetan ikasleek taldeka azalpen testu bat ekoiztuko dute, hain zuzen ere, informazio-panela. Horietan garatuko den gai nagusia hizkuntzak eta hiztunak izanda ere, bakoitzean, gai nagusiaren adar bat baino ez da ekoiztuko .

Lan egiteko informazioa hainbat iturritatik jasoko dute (Internet, entziklopediak, liburu tematikoak...).

Lana amaitzen dutenean ikastetxeko pasabidean ipiniko dute ikusgai.

POGRAMAZIOA

H1: Informazio-panela

Hizkuntzak eta hiztunak

Ikasleek , taldeka bildurik , eskolako egoera soziolinguistikoa aztertzeaz gain, bertan mintzatzen diren hizkuntzei buruzko informazioa jasoko dute, ezagupen maila handitzeko

Komunikazio Egoera

Gaia : **Inguru hurbileko hizkuntzak eta hiztunak**

Igorlea :**lehenengo DBHko talde bat**

Hartzailea : **Lehenengo DBHko ikasle orok**

Kanala : **Idatzia**

Asmoa eta helburua : **Inguruko hizkuntzen eta hiztunei buruzko informazio objektiboa ikaskideei jakinaraztea.**

Argitalpen lekua : **ikastetxeko pasabidea**

Erabilpen eremua : **Ikasketako hizkuntza**

Testu tipoa: **Azalpen testua**

Testu generoa:**Informazio-panela**

Testu generoen errepertorioa

- Olerkia
- Abestia
- Hizkuntza eskubideen adierazpena
- Postala
- Albistea
- Informazio-panela
- Egitasmoa
- Artikulua
- Testuliburuak
- Mapak
- Entziklopediak
- Zenbait hiztegi: entziklopediko, terminologia, hizkuntzako hiztegia..orokorra...

UNITATEAREN BIZKARREZURRA

LAN- SEKUENTZIAK	JARDUERAK
	O. Motibazioa eta negoziazioa
1. Hizkuntzaren erabilpen eremuak bereizten.	1. komunikazio egoerak eta erabilpen eremuak 2. Testuak eta erabilpen eremuak 3. Ikasketan erabilpen eremuko testuak
2. Informazio-panelak aztertzen	4. Informazio-panelen egitura 5. Informazio.-panelaren testu idatzia
3. Gure eskolako hizkuntza-errealitatea	6. Eskolako hizkuntza errealitatea aztertzen 7. Euskararen egoera 8. Informazio jasotzen 9. Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak gogoratzen
4. Eskolako hizkuntzak: Zer dakit eurretaz?	10. Zer dakit eskolan mintzatzen diren hizkuntzez? 11. Euskararen bilakaera
5 Hurbil gaitzen informazio iturrietara	12. Hiztegi motak bereizten.Hiztegiz hiztegi 13.Hainbat testutatik hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak biltzen. 14.Lexiko sorkuntzarako bideak.Hitz elkartuak eta eratorriak. 15. Gelako hiztegi soziolinguistikoa
6. Informazio-panela gauzatzen	16.Informazio-panelaren kontestualizazioa 17. Plangintza 18 .Testualizazioa 19.Berrikusketa 20.Ebaluaketa

HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Hizkuntzaren erabilpen eremuak bereiztea
2. Azalpen testuen ezaugarriak bereiztea eta bereziki informazio-panelarenak.
3. Informazio-panelak genero gisa dituen ezaugarriak identifikatzea.
4. Inguru hurbileko hizkuntza errealitatea ezagutzea.
5. Euskararen egoera zein izan den eta zein den jakitea
6. Eskolan mintzatzen diren hizkuntzez zerbaite jakitea
7. Euskararen bilakaera ezagutzea
8. Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa egoki hautatzea.
9. Informazio nagusiak eskematxoen bidez adieraztea.
10. Idatzizko azalpen laburretan informazioa zehatz eta ordenaturik ematea.
11. Azken produkzioari begira informazio egokia bilatu eta aukeratzea.
12. Kohesio elementuak zuzen erabiltzea.
13. Azalpena hurrenkera egituraren bidez ematen jakitea.
14. Talde lanetan eztabaidatzen jakitea.
15. Ikaskideek esaten dutena errespetatzea (lana eta iritziak).
16. Lana planifikatzea. Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkeztea.

EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzaren erabilpen eremuak <ul style="list-style-type: none"> ✓ Komunikazio egoera eta erabilpen eremua ✓ Testuak eta erabilpen eremuak ✓ Ikasketa eremuko testu generoak • Informazio-panela <ul style="list-style-type: none"> ✓ Egitura ✓ Informazio-panelaren informazio linguistikoa zein ez linguistikoa • Ikastetxeko egoera soziolinguistikoa <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ama hizkuntza eta erabilera esparrua ✓ Hiztun elebakar, elebidun eta eleanitzak. ✓ Erabilera esparrua ✓ Hizkuntza ofiziala ✓ Hizkuntza txikia • Euskararen egoera • Azalpen testuen ezaugarriak • Eskolan mintzatzen diren hizkuntzak <ul style="list-style-type: none"> ✓ Hizkuntzen jatorria ✓ Hizkuntzen hizkuntza familia ✓ Hiztun kopurua ✓ Mintzatzen den gune geografikoa ✓ Arautu ziren data ✓ Eredu estandarra eta 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa erreflexiboa <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuen egitura bereiztea ✓ Lexikoa eta eremua erlazionatzea ✓ Erregistroa (kultua, formala, kolokiala..) eta eremua erlazionatzea • zenbait informazio-panel aztertzea • Galdetegia betetzea • Informazio inplizituak inferitzea • Irakurketa gidatua egitea <ul style="list-style-type: none"> ✓ Galdeketak ✓ Testuko ideia nagusiak ateratzea • Informazioa jasotzea • Kohesioa lortzea <ul style="list-style-type: none"> ✓ Paragrafoak ✓ Testu antolatzaileak • Azalpen testuen ezaugarriak testuan antzematea • Informazioa iturri desberdinetatik biltzea eta aukeratzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte -hartze aktiboa • Elkarlana • Hizkuntzekiko errespetuzko jarrera • Gizarteko partaide aktiboak izatea Ikaskideak errespetatzea. Interesa eta gogoia erakustea lana ahalik eta modurik erakargarrienean aurkezteko.

<p>euskalkiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • .Euskaren bilakaera • Hiztegi motak • Lexiko sorkuntzarako bideak • Informazio-panela: Idatzizko azalpena <ul style="list-style-type: none"> ✓ hurrenkera egitura • Kohesio elementuak <ul style="list-style-type: none"> ✓ elementu ortotipografikoak ✓ Paragrafokako bereizketa ✓ Testu antolatzaileak ✓ 	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendutako entzuketa nahiz irakurketa arretatsua <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak aukeratzea ✓ Informazio nagusiak eskeman zein eduki mapan irizpide baten arabera ordenatzea • Informazio grafikoa (mapak), idatzizko azalpen bihurtzea • Hiztegi motak ezagutzea • Ikastetxeko informazio iturrien berri izatea • Zenbait testutan hiztun eta hizkuntzen eremuko hitzak bereiztea,biltzea eta esanahia bilatzea • Hitzak eratzeko bideak zeintzuk diren jakitea • Azalpena kontestualizatzea <ul style="list-style-type: none"> ✓ igorlea • Testua planifikatzea <ul style="list-style-type: none"> ✓ Hautatutako gaiaren egokitasuna balioestea ✓ Informazioa aukeratzea ✓ Irizpide jakin baten arabera ideiak ordenatzea ✓ • Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkeztea 	<ul style="list-style-type: none"> • Talde lanetan ikaskideek esaten dutena balioestea. • Talde lanetan eztabaidatzen jakitea
---	--	---

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Ikasleak gai izan beharko du

1. Komunikazio egoerak eta erabilpen eremuak bereizteko.
2. Testuak dagozkien erabilpen eremuetan kokatzeko.
3. Ikasteko hizkuntzaren eremuan ager daitezkeen testu generoak identifikatzeko.
4. Azalpen testuen ezaugarriak identifikatzeko.
5. Informazio-panela testu genero gisa beste testu genero batzuetatik bereizteko.
6. Eskolako hizkuntza errealitatea aztertzeke.
7. Euskararen egoera adierazteko
8. Testu batetik informazio garrantzitsuena jasotzeko
9. Hiztegi motak bereizteko
10. Lexiko sorkuntzarako bideak bereizteko
11. Azken produkzioari begira informazio egokia bilatu eta aukeratzeko.
12. Internet edo beste iturri batzuk erabiliz gaiarekin lotutako informazio egokia lortzeko.
13. Talde lanetan eztabaidatzen jakiteko.
14. Idatzizko azalpen laburretan informazioa zehatz eta ordenaturik emateko.
15. Kohesiorako baliagarriak diren elementu ortotipografikoak erabiltzeko.
16. Informazio nagusia eskematxoek bidez adierazteko.
17. Azalpena hurrenkera -egituren bidez emateko.
18. Lana planifikatu eta azken ekoizpena txukun eta ondo antolatuta aurkezteko

UNITATE DIDAKTIKOAREN JARDUEREN DESKRIBAPENA

Motibazioa eta negoziazioa jarduera/ 0. jarduera (saio 1)

Hausnartzeko izenburupean ageri diren irudiak gaiari buruzko eztabaida pizteko eta interesa sorrarazteko proposatzen dira. 0 jarduerarekin batera hasierako saiorako planteatu daiteke.

Taldeka bilduko dira eta irudiei erreparaturik bertan ageri diren galderak, edo irakasleak pentsatutako beste batzuk. erantzun eta iritzia eman dezakete.

Horrez gain, eta beti taldeak aukera emango balu, ondoko jarduera egin dezakezu. Jarduera honek aurreritziak aurreritzi ez direnetik bereizteaz gain, geroago eremuak bereizteko egingo duten jardueraren hurbilketarako balio du.

Aurre-ezagupenak

Aspaldi honetan hizkuntzen inguruan zenbait informazio, eta eztabaida sortzen ari dira; hori dela eta, ondoko baieztapenak sarri entzun izan ditugu.

- Elebidunak izateak aberasten gaitu.
- Hizkuntzak galdu behar ez diren altxorak dira.
- Europan eta munduan eleaniztasuna nagusi da (berrehun bat estatu daude munduan eta sei mila hizkuntza inguru)
- Euskalkiak bigarren mailaka hizkuntzak dira
- Euskarak ez du bizirik iraungo, bere erabilpen eremua urria baita
- Zertarako idatzi behar ditugu errotuluak bi hizkuntzetan, batean idatzita denok ulertzen badugu
- Euskarak ez du balio goi mailako ezagutzak transmititzeko
-

Gorabehera, eta aurriritzi horiek, komunikabideak direla medio, hots, irratia, telebista, aldizkariak, herritarrongana iritsi dira eta gai eztabaidagarriak gertatu dira, komunikabideetan zein gure eremu hurbilekoen artean.

Baina, zuk zer dakizu honetaz?.

Lehenengo, hizkuntzen inguruko eztabaidetan agertzen diren ideien artean bereiziko dituzu **aurriritziak**, hots, zerbaiti buruz duzun iritzia edo ustea, zerbait hori ezagutu

edo aztertu aurretik, eta **aurriritziak ez direnak**. Horretarako kontuan izan goian aipatutakoak; besteren bat bururatuko balitzaizu, gehitu.

Ondorengo txantiloian bilduko dituzu honetaz dakizuna.

Idea edo aurriritzi bakoitza entzun edo irakurri duzun eremuaren azpian jarriko duzu; beraz, 2 parametro izango dituzu kontuan; aurriritzia den edo ez, eta **non jaso duzun informazio hori**.

Aurre-ebaluaketarako txantiloia.

	Non entzun edo irakurri dut?				Zer dakit horretaz?
	Komunikabideetan	Pertsona arteko harremanetan	Instituzioetan	Ikasketetan	
Hizkuntzen	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Irratian ✓ Telebistan ✓ Aldizkarietan ✓ Egunkarietan 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lagun artean ✓ Etxeko artean 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskolan ✓ Udaletxean ✓ Kultur-etxean 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Testu liburuan ✓ Entziklopedian ✓ Informazio-panelean 	
Aurriritziak	1.				
	2.				
	3.				
	4.				
Aurriritziak ez direnak	1.				
	2.				
	3.				

Horrekin batera negoziatu egingo dugu unitatean egingo dutena (0. jarduera). Zein gaitan jantziko diren, ikasi dutena, nola jakinaraziko dien hartzaileei, zein testu tipo eta generoz baliatuko diren, zein informazio iturritara jo beharko duten....

Horrez gain, taldeak aukera ematen badizu, hausnarketa sakonagoa egin dezakezu , horretarako,hona hemen ondoko txantiloia

. Ikastunitatean zehar ikasiko duguna ,egingo duguna eta nola ebaluatuko den

Ikastunitatean zehar honako hauek egiten ikasiko dut	Ikastunitatean zehar honako hauek egingo ditut	Ikastunitatean zehar egindakoa honela ebaluatuko dugu
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazioa jasotzen ✓ Ditudan ideiak ongi ordenatzen ✓ Informazioa ahalik eta laburren ematen ✓ Testuko atalak ongi antolatzen ✓ Testuko ideiak ongi lotzen ✓ Hartzaile jakin batentzat, kasu honetan, nire ikaskideak, testua egokitzen ✓ Informazio-panelaren egituraz eta helburuaz jabetzen ✓ Informazio-panelaren euskarri grafikoak erabiltzen:geziak, marrazkiak, irudiak ✓ Nire eskolako egoera soziolinguistikoa aztertzen ✓ euskararen egoera eta gizarte mailan, euskararen erabilpena zein den jakiten ✓ Zeintzuk diren hil zorian dauden hizkuntzak ✓ Zer den hizkuntza gutxitua eta zer egin behar den gutxitua ez izateko 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazioa jasotzeko: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zenbait informazio iturritara joko dut ▪ Zenbait testu irakurriko dut ▪ Galdetegiak beteko ditut ▪ Ondorioak aterako ditut ▪ Ideia nagusiak jasoko ditut informazio-panelerako ✓ Laburpenak egingo ditut informazio-panelerako ✓ Testu laburrak ekoiztuko ditut:testuaren antolaketa eta testuratzeko lanak zainduz ✓ Testuak ulertzeko hiztegi soziolinguistikoa osatuko dut ✓ Euskararen aldeko kontratua sinatuko dut ✓ Informazio-panelean kokatuko ditut idatzitako testuak.Eta, halaber, eginiko eskemak eta marrazkiak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Norberak ebaluatuko du ikasitakoa autoebaluazio fitxa baten bidez. ✓ Besteek ebaluatuko dute egindakoa fitxa baten bidez. ✓ Irakasleak sekuentzia bakoitzaren bukaeran azterketa jarriko du ikasi dena neurtzeko ✓ Taldekideek ebaluatuko dute nire taldeko partaidetza fitxa baten bidez. ✓ Klaseko koadernoan, unitatean zehar egindakoa ikusteko

Ikusten denez, goiko txantiloian agertzen dira unitatearen zehar ikasiko dena, egingo dena, eta hori dena, nola ebaluatuko den.

Prozedura

Txantiloia astiro Irakurri behar dute, euren lan plangintzarako baliagarria izango delako. eta gero taldeka bilduta landu goiko txantiloia ondoko jarraibideei jarraituz.

- Gehitu zutabe bakoitzean garrantzitsua izanda agertzen ez dena.
- Kendu zutabe bakoitzetik behar ez dena
- Ordenatu zutabe bakoitzeko eginkizunak garrantziaren arabera.
- Ekarpinak komunean jarrita, ikasiko dena, egingo dena eta nola ebaluatuko denaren txantiloia berria osatu.

Gogoratu behar zaie ekarpinak komunean jartzeko bozeramalea aukeratu behar dutela Guztien ekarpenekin unitatea garatzeko balio izango duen txantiloia osatuko dute, hau da, lan plangintzarako txantiloia

Ikasleek taulako proposamenetatik ezin dute askorik kendu, agian beste proposamen batzuk erantsi ahal izango dituzte.

1. jarduera: Komunikazio egoerak eta erabilpen eremuak (saio erdia)

Jarduera honen helburua ondoko hau litzateke: komunikazio egoera bakoitza dagokion erabilpen eremuan kokatzea

Gaztelerako unitatearen hasieran, motibazio gisa, lengoia zer den eta zertarako erabiltzen dugunaren inguruan hausnarketa egiten da

Orain ildo horretatik jarraituz, gogora dezagun, Komunikatzeko erabiltzen ditugun ekintzak bi eratakoak izan daitekeela; hitzezko ekintzak eta hitzezkoak ez direnak

Lehenengoan , hau da , hitzezko ekintzetan beste hiztunekin komunikatzeko lengoia erabiltzen dugu; bigarreanean, aldiz , komunikatzeko ez dugu lengoia erabiliko. Adibidez, telebistako mandoaren bidez, telebistako katea aldatu.

Beste hiztunekin komunikatzeko erabiltzen ditugun ekintzei, bai entzunez, bai irakurriz, zein idatziz ; **hitzezko ekintzak** deitzen diegu

Hitzezko ekintzek **helburu bat dute**(konbentzitzea, berrien berri ematea, informazio jakinaraztea...), eta gainera , **eremu konkretu** batzuetan ematen dira(lagun artean, ikasgelan, irratan, udaletxean...)

Komunikatzeko ekintza sortzen den eremuak eta hitzezko ekintzen helburuek gauzatzen dutela **komunikazio egoera**

Komunikazio egoera eta erabilpen eremuari buruzko zehaztapen gehiago nahi izanez gero, jo ondoko informazio iturrietara.

Euskara Literatura DBH lehen zikloa “Hitz eta Pitz” ostadar proiektua

Lengua castellana y literatura. Para narrar. Manual 1º ESO.Rialla-octaedro argitaletxea.
Felipe Zallas

2. jarduera: Testuak eta erabilpen eremuak (saio 1)

Sarrera:

Jarduera honetan zenbait testu dagokien erabilpen eremuan kokatzen ahaleginduko gara

Prozedura:

Ikasleek taldeka burutuko dute jarduera hau. Hala ere, irakaslearen laguntza beharrezkoa dela uste dugu, batez ere, behaketaren emaitzak adierazteko.

Zein den idazkiaren formatoa
Zein lexiko erabiltzen duen
Zein erregistrotan
Zenbatgarren pertsonan idazten den ...

3. jarduera: Ikasketa erabilpen eremuko testuak (saio erdi)

Sarrera:

Aurreko jardueretan komunikazio egoerak eta testuak dagozkien erabilpen eremuetan kokatu baditugu, orain azken ekoizpena, hau da, azalpen idatzia, informazio-panela, testu genero gisa dela medio, ikasteko hizkuntzaren eremuan kokatzen denez, eremu horretan ager daitezkeen testu generoak zeintzuk diren jakiteko proposatzen da jarduera hau.

Prozedura:

Binaka bildurik, lehenengo, laukiari erreparatuko diote, eta gero ezkerreko zutabearen agertzen den testu generoen zerrendatik ikasketako hizkuntzako eremukoak, hautatuko dituzte, eskuineko zutabearen bilduta uzteko

2. LAN –SEKUENTZIA

Informazio-panelak aztertzen

Azken ekoizpena gauzatzeko, testu genero gisa, informazio-panela aukeratua izan da. Baina, horretara heltzeko, aurretik zenbait pausa eman behar dira

1 Informazio-panelen egitura ezagutu. Horretarako, ikasleen materialetan agertzen diren ereduaz gain, hemen beste batzuk eskaintzen dira. Hauek nahiko izango ez balira, ikasleek etxetik informazio-panelen ereduak ekarriko lituzkete.

2. Egingo duten informazio-panelaren testu idatzia aztertu

Bestalde, talde lanetan norberaren iritziak defendatu eta ikaskideenak errespetatzeko ahaleaginean arituko dira.

Beraz, irakasleak taldekideen jarrera eta jokabidea baloratuko du behaketaren bidez; izan ere jarrerazko eta prozedurazko helburu didaktikoak dira

4. jarduera: Informazio-panelen egitura (saio 1)

Informazio-panelen egitura ezagutzeko, ikasleen materialetan agertzen diren ereduaz gain, hemen beste batzuk eskaintzen dira.

Hauek nahiko izango ez balira, ikasleek etxetik informazio-panelen ereduak ekarriko lituzkete.

APPLICATION OF NESTED-PRIMER-PCR (NP-PCR) TO THE AUTHENTICATION OF COMERCIAL CANNED TUNA

Miguel Angel Pardo* & Begoña Pérez-Villarréal

Department of Food Technology, AZTI - Fisheries and Food Technological Institute, Sukarrieta (Bizkaia), Spain
*E-mail: m.pardo@azti.es

AZTI Foundation
Teaeramanendi Apartua 22
48940 Sukarrieta (Bizkaia)
SPAIN

INTRODUCTION

In order to avoid possible fraud in the labelling of seafood, the identification of fish species is becoming a topic of growing concern. Authentication of these food products becomes an unsolvable problem when the external morphological characteristics of the fish are removed during filling or processing.

According to the EU Regulation 1831/02, the term white tuna includes exclusively *Thunnus albacillus*; the light tuna label refers to *Thunnus albacares*, and the label denominated as tuna includes any *Thunnus* or similar species (e. g. *Melastomus pelamis*). Therefore, it is necessary to have an easy and reliable assay to authenticate the raw material in the canning industry.

Pre-canning and canning conditions usually involve the utilization of frozen fish which, in many cases, is subsequently thawed. These conditions might affect the average size of extracted DNA because nucleases can survive freezing, as other enzymes do. The use of additives, such as spices or sauces, in seafood inhibits the PCR reaction (Ram et al., 1996). Besides, nowadays, it is very common to consume smoked canned tuna. In any case, the number of additives susceptible of exerting an inhibitory effect appears to increase steadily.

In this study, an amplification of DNA fragments using nested primers in two consecutive polymerase chain reactions (NP-PCR) was carried out. An amplicon of 276 bp (TUN276) was obtained and, subsequently, analysed by RFLP to identify the tuna species. This analytical method could be used to identify any commercial canned tuna samples.

Figure 1. PCR products for 23 different commercial canned tunas, analysed by gel electrophoresis. Lanes 1-3, TUN276 nested PCR; Lanes 4-6, TUN276 NP-PCR. Lane 7 & 8, from non-supplemented laboratory; Lanes 9-5 and 7-9, from a commercial canned tuna; Lanes 3 & 5, in oil; Lanes 4 & 6, supplemented with sauce; Lanes 2, 9, smoked canned tuna; Lanes 7 & 8, Molecular Marker.

Canned tuna fish fillets cooked in sauce

	BsaI	NdeI	BstI	Tsp50I	BclI
<i>T. albacilla</i>	276	276	276	276	276+75
<i>T. albacares</i>	276	276	226+40	276	276
<i>T. obesus</i>	276	276	276	148+128	276
<i>T. orientalis</i>	176+75	276	276	276	276
<i>T. thynnus</i>	276	226+40	276	276	276

Table 1. Expected Size of Restriction Fragments of Five Canned Tuna Species After Digestion of TUN276 Fragment with Five Restriction Enzymes.

Figure 2. RFLP patterns of five tuna species. The TUN276 obtained from canned tuna species were digested with BsaI (B), NdeI (N), StuI (S), Tsp50I (T) and BclI (Y) as described in Materials and Methods. Cut: undigested fragment.

Informazio-paneean agertzen diren elementu linguistiko eta ez linguistikoen banaketari erreparatuko diogu. Beraz, ez kezkatu idatzita dagoen testua ondo irakurtzen ez bada, asmoa ez baita azalpen testuaren ezaugarriak aztertzea, horretan parte hartzen duten elementuen kokapena baizik.

Maketazioa hartuko da kontuan, hau da, non kokatzen diren irudiak, argazkiak, diagramak, azalpen idatziak....

2. Aztertu egitura eta baliabide, linguistikoak, eta ez linguistikoak.

**HIZKUNTZEN TRATAERA
BATERATURAKO MATERIALAK
1. DBH**

Osatutako taldeetan jarraituko dute lanean, baina , orain hausnarketa sakonagoa egingo dute.Elementu bakoitzaren funtzioari erreparatuko diote.Baliabide gisa ,ikasleen materialetan hori bereziki lantzeko proposatzen den txantiloia dago .
Lan hau burutzeko irakaslearen laguntza ezinbestekoa da

5.jarduera :Informazio-panelaren testu idatziaren ezaugarriak aztertzen (saio 1 eta erdi)

Egingo duten informazio-panelaren testu idatziaren ezaugarriak aztertuko dituzte .Horretarako behaketarako txantiloia izango dute, eta 6.testua.

Prozedura:Behaketarako txantiloian agertzen diren puntuei erantzuten saiatuko dira, erantzun horiek 6.testuak aurkituko dituztelarik

3.LAN-SEKUENTZIA

Inguru hurbileko hizkuntza- errealitatea

Sekuentzia honek inguru hurbileko hizkuntza-errealitatea aztertzea izango luke helburutzat, eta horretarako, ondoko ibilbideari jarraituko diote

Eskolako egoera soziolinguistikoa aztertzetik, gizartean euskarak duen egoerara igaroko dira, bitartean, testuetatik informazioa jasotzen eta azalpen testuei dagozkien ezaugarriak bereizten ikasiko dutelarik

Material anitzak erabiliko dira;galdetegiak,datuak biltzeko txantiloia, ondorioak ateratzeko txantiloia, zenbait testu

Eginkizun gehienak lan taldeetan garatuko dituzten arren, baten bat, bakarrik osatu beharko dute

6.jarduera . Eskolako hizkuntza-errealitatea aztertzen (2 saio)

Jarduera honen helburua eskolako egoera soziolinguistikoa aztertzea da

Eskolan normalkuntza proiektuan sarturik egonez gero, lanak koordinatzea komeniko litzateke.

Prozedura

Lehenengo, ikasle bakoitzaren hizkuntza erabilera zein den jakiteko, galdetegia beteko dute Honetan jasoko den informazioa ondoko hau izango da: ikasle bakoitzak komunikazio egoera bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen duen, beti ere, ama hizkuntza zein den kontuan izanik

Ikasleen materialetan,datuak biltzeko eta galdetegia betetzeko prozedurak zehazten dira . Gero, datu horiek datuak biltzeko txantiloian jasoko dira. Hauek, adierazgarriak izango dira Ikastetxeko egoera soziolinguistikoa aztertzeko .

Ondoren, ondorioak aterako dituzte.Ondorio gidatuak izango dira, horretarako txantiloia izango baitute.

Lan hauek taldeka burutuko dituzte

Bukatzeko, bakoitzak bere hausnarketa egiteko beste datu dituenez, testu idatzian jasoko ditu hausnarketatik atera dituen ondorioak.
Ekintza honek jarduera ebaluatzeko balio du

Datu objektiboak bildu dituzte, ondorioetara heldu dira,eta hori idatziz jaso dute , beraz, lkerketa lana bukatutzat emango da.

Jarrerak lantzeko, hausnarketa gisa, bai edo ez eskatzen duten zenbait esaldi proposatzen zaizkie.Honekin, euskararen egoeraren aurrean, bakoitzak izan dezakeen jarreraren hausnarketarako balioko du.

Taldeak aukera emango balu, ondoko jarduera egin daiteke.

Jarduera: Euskararen aldeko konpromezua (saio 1)

Gizarte mailan, euskararen aldeko konpromezua, herri-aginteen bidez, goian esandako aldagai objektiboak direla medio ematen ari dira. Eta zuen esku zer dago?.

Hasteko

Egin ezazue euskararen aldeko konpromezua edo kontratua osatzeko ekintzen zerrenda. eta horrekin zuen euskaren aldeko konpromezua edo kontratua.

Euskararen aldeko konpromezua edo kontratua osatzeko ekintzen zerrenda
1.
2.
3.
4.
5

Zuen euskararen aldeko kontratua edo konpromezua idatzi baino lehenago, bi ekintza burutuko dituzue.Bata, kontratu baten ezaugarriak zeintzuk diren ikusi, eta bestea, kontratu bat eskuartean duzuelarik, aztertu bertan azaltzen den egitura. Hemen dituzue kontratu baten ezaugarriak.

Kontratu baten ezaugarriak

Helburua: Bi parteen arteko hitzarmen librea sinatzea
Ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza zehatza,laburra, eta argia, gaizki ulertzerik sortarazten ez duena.• Dekalogo itxura duena
Atalak <ul style="list-style-type: none">• Data eta sinatzen den lekua• Partaideak euren identifikazioarekin• Bakoitzak parte hartzen duenaren zergatia• Kontratuaren klausulak• Alde bien adostasuna eta kontratu-gilen sinadura

Kontratu baten ezaugarriak goikoak direlarik, begira dezagun, kontrol txantiloia bidez, zein neurritan betetzen diren ezaugarri horiek beheko kontratuan.

10. testua

http://www.fundaciongrupoeroski.es/web/eu/medio_ambiente/2004/04/13/391.php

LURRAREN ALDEKO HEZIKETA KONTRATUA.

Lurraren Kontratua Orihuelako Pepe Vergara idazleak idatzitako agiri bat da eta, ingurumenari buruzko neurri jakin eta hurbileko batzuen bitartez, hiritarrak planeta zaintzeak duen garrantziaz kontzientziaz du helburu. Kontratua printzipio dekalogo batez osatuta dago, hiritarrak bere inguruneari buruzko konpromiso indibidual gisa barneratua.

"Lurra dut etxe erraldoi. Bertan bizi behar dut, bertan elkarrekin bizi behar dugu. Bertan hazi eta ikasten dut, jolas eta barre egiten dut. Bertan zoriontsu izan behar dut. Horregatik hartzen dut zaintzeko konpromisoa. Gaurgero lurra zaintzea izango da nire zereginetakoa. Nagoen lekuan nagoela, nire apurtxo emango dut gure planeta egunetik egunera bizigarriagoa izan dadin".

Hau da nire konpromisoa:

Etxean::

Lehenengoa: Ez dut ura ateratzen utziko aurpegia, eskuak edo hortzak garbitzen ari naizenean. Iturria itxiko dut, erabiltzen ari ez naizenean.

Bigarrena: Inor argitzen ez duten edo ezertarako balio ez duten argiak itzaliko ditut. Energia elektrikoa aurrezten badut ura eta beste baliabide natural ugari aurrezten dut.

Hirugarrena: Zaborra sailkatzeko poltsa independenteak jartzen saiatuko naiz. Guraso eta anai-arrebak konbentzitzen saiatuko naiz zaborra nahas ez dezaten. Beira, plastikoa eta hondakin organikoak bereizi eta

dagozkien edukiontzietan jarriko ditut.

Hirian:

Laugarrena: Etxetik kanpo ere kontuz ibili naiz urarekin. Edateko ura duten iturriak errespetatuko ditut. Ez dut ura jolaserako erabiliko, eta ez dut alferrik galduko. Badakit kontuz ibili ezean ura bukatu egin daitekeela. Iturriak baloratuko ditut, eta egarriak nagoenean edateko baino ez ditut erabiliko.

Bosgarrena: Nire hiria garbi mantenduko dut, nire planeta garbi mantentzeko lehenengo pauso gisa. Paperontziak erabiliko ditut. Ez dut lurrera botako txiklerik, zorrerik, paperik eta kalea zikin dezakeen ezer. Badakit hiri garbi bat politagoa eta atsegina dela.

Seigarrena: Berdeguneak errespetatuko ditut. Landare eta lorategiekin kontuz ibiliko naiz. Ez dut zapaldu behar ez den lekurik zapalduko.

Mendian, hondartzan edo landan:

Zazpigarrena: Naturara irteten naizenean soilik horretarako dauden lekuetan kokatuko dut kanpamendua. Gainera, zorrotz beteko ditut kanpalekura iristean aurkituko ditudan jarraibideak.

Zortzigarrena: Ez dut inoiz surik egingo horretarako erreserbatuta dauden lekuetatik kanpo, eta ez diot inori horrelakorik egiten utziko. Badakit sua dela naturaren etsai nagusia, eta nire ahalbide guztiekin borrokatuko naiz bere kontra. Gainera, saiatuko naiz erretzen dutenak konbentzitzen naturan gauden bitartean erre ez dezaten.

Bederatzigarrena: Egunaren amaieran aztertu egingo dut nagoen lekua, eta erabat garbi gera dadin saiatuko naiz. Inoiz ez dut naturan zaborrik utziko.

Nagoen lekuan nagoela:

Hamargarrena: Konpromiso horiek beteko ditut, eta bete-betean disfrutatuko dut nire planeta zaintzen dudana bitartean eta ingurukoek zain dezaten saiatzen naizen bitartean. Nire konpromisoa serioa eta benetakoa dela jasota gera dadin, **izenpetzen dut**

Ondoko txantiloia lurraren aldeko kontratuan, zein zuok burutuko duzuen euskararen aldeko kontratuan, testu generoari dagozkien ezaugarriak betetzen diren frogatzeko balio izango dizue ;beraz, ez galdu

➤ Ataletan , esaldi bakoitzaren ondoan “bai” edo “ez” ipini.

Kontratu baten ezaugarriak	Lurraren kontratua	Euskararen aldeko kontratua
<ul style="list-style-type: none"> • Helburua argi bat agertzen da • Bi parteen arteko hitzarmen librea sinatzen da 		
<p>Atalak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Data eta sinatzen den lekua • Partaideak euren identifikazioarekin • Bakoitzak parte hartzen duenaren zergatia 		

• Kontratuaren klausulak		
• Dekalogo		
Alde bien adostasuna eta kontratu-gilen sinadura		
Hizkuntza Ezaugarriak:		
• Hiztegi zehatza,		
• Esanahi argia,		
• Gaizki ulertzeak ekiditzen dira.		

7.jarduera : Euskararen egoera (saio 1)

Aurreko jardueretan Ikusi da zein den, gaur egun, euskararen egoera . Jarduera hau dela medio, aztertuko da euskaren egoera historian zehar gaur egunera arte.

Hau burutzerakoan, konturatuko dira euskarak bizirik irauteko, zein aldagai objektibo izan diren historian zehar.Gero, aztertuko dute zein aldagai objektibo behar ditugun, urteetan bizirik iraun duena galdu ez dadin

Prozedura

Gaia garatzen duen testua eskainiko zaie, eta hau irakurri ostean, ulermen bideratua proposatuko zaie.

- 1- Esaldi enuntziatiboak erantzun gisa Egia edo gezurra eskatzen dutenak
- 2- Galderaren erantzun zuzena

Testuaren ulermena landuta dagoela, hortik ateratako ideia nagusiak jasoko dituzte.

Ekintza honen bitartez bi helburu lortzen dugu, alde batetik, ikaslearen abstrakzio maila lantzea, eta bestetik, informazio- panelerako ideiak biltzea.

Bigarren helburua lortzeko, euskararen alde agertzen diren ekintzen zerrenda emango zaie Ondoko hauek egiteko.

1-Irakurri astiro, eta gehitu falta diren ekintzak.

2.Hurrengo laukian ekintzak banandu bi parametro hauek kontuan hartuz: erabilera esparrua, eta ekintza egiten ari den edo egiteko dagoenaren arabera.

Lan hau taldeka egingo dute

8. jarduera : Informazioa jasotzen (saio erdia)

Jarduera honen helburua informazioa jasotzea den arren, ez dugu ahaztuko orain arte lantzen egon garen gai nagusiaren ildoak. Horregatik, informazio jasotzeko, testu hau hautatu dugu bereziki.

Testu honen erabilpen eremuari erreparatzen badiogu, instituzioetako testua dela esan dezakegu, eta gaiari erreparatuz, euskara normalizatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitasmoa. Horrez gain, esan daiteke azalpen testuei dagozkien ezaugarri batzuk ere erakusten dituela

- Paragrafoetan antolatuta
- Paragrafo bakoitzaren hasieran testu antolatzailea du

Testua instituzioetako eremuan murgiltzen denez, eta gure ikasleak horretara ohitu gabe daudenez, erraztu behar diegu egin beharra

Prozedura

Paragrafok galdetegiak prestatuko diegu, eta galdera horiei erantzunda, ideia nagusiak aterarazko dituzte

Honela, ikasleei helarazi nahi diegun ideia azpimarratzen da: paragrafo bat ideia bat. Lan hau taldeka egingo dute.

Taldeak aukera emango balu, beste jarduera hau proposatzen da .

Jarduera: Laburpenak egiten (saio erdia)

Orain testuko ideia nagusiak lotzen saiatuko zarete. Laburpena, lehenengo, bakoitzak zuena egingo duzue, eta gero, hirunaka bilduta, saiatu laburpen on bat egiten. Hori egiteko izan kontuan laburpen on bat nolakoa izan behar den

Laburpena egiteko kontuan hartu beharrekoak

Laburpen on batek honelakoa izan behar du.

- ✓ Laburra
- ✓ Testuko ideia nagusiak biltzen dituenak
- ✓ Behar diren datu guztiak, eta horiek bakarrik, ematen dituenak, Beraz, ez gehiegi ez gutxiegi.
- ✓ Datuen aurkezpenak aldeztatik erabakitako ordena baten arabera antolamendua erakusten duena,
- ✓ Kate idatzian agertzen diren elementuak aurretik eta atzetik esandakoarekin erlazionatzeko dauden mekanismoak ongi erabiltzen duena.
- ✓ Lexiko zaindua, egokia, eta zehatza. Iritzirik adierazten ez duena.
- ✓ Zuzentasunez idatzita dagoena

Goiko testuaren laburpena

Nik neuk egindako laburpena	Taldean egindako laburpena

Beheko txantiloia 2 momentutan erabiliko da. Lehenengoa izango da banaka egin duzuen zuzentzeko, lan hau taldekide batek egingo du, eta bigarrena denek ekarpenetik sortuko dena ebaluatzeko.

Laburpena Ebaluatzeko txantiloia

Informazioaren aukeraketari begira	Bai	Ez
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ideiak ez ditu errepikatzen ➤ Informazio nahiko ematen du. Ez gehiegi, ez gutxiegi. ➤ Ideia argiak, eta ulergarriak adierazten ditu 		
Informazioaren egituraketari begira		
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Antolatutako informazioa azaltzen du. ➤ Ideien arteko bereizketa, puntu eta aparte mugaturik agertzen da. ➤ Paragrafoek ideia oso bana garatzen dute 		
Testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoei begira		
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Testuko esaldien artean erlazio logikoak ezartzen ditu, lokailuak direla medio. 		

Zuzentasunari dagokionez		
Ez du akats gramatikalik ez ortografikorik egiten		
Lexikoari begira		
Lexiko egokia .Testuak eskatzen dituen hitz teknikoak erabiltzen .		

9. jarduera : Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak gogoratzen (saio 1)

Jarduera honen bitartez frogatu nahi dena zera da:hizkuntza batean ikasten dena beste batean erabil daitekeela; hau da, ikasketen transferigarritasuna
Aldi berean, azalpen testuei dagozkien ezaugarriak birpasatzen dira.

Gaztelaniarako unitatean azalpen testuei dagozkien ezaugarriak ikasi dituztenez, han ikasitakoa praktikan jarriko dute aurreko azalpen testua dela medio.

Prozedura

Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak aztertzeko txantiloia eskuan dutelarik, begiratuko dute horko itemak aurreko testuan betetzen diren .

Lana taldeka burutuko dute

4.LAN- SEKUENTZIA

Eskolako hizkuntzak:zer dakit eurretaz?

Lan sekuentzia honetan eskolako hizkuntzez, eta bereziki euskal hizkuntzaz, gehiago jateaz gain, azalpen testuen ekoizpenekin lotuta dauden zenbait prozesu garatuko dira, besteak beste, ondoko hauek:

- zenbait informazio iturritatik informazioa eskuratzea.Informazio hori, idatziz, ahoz zein mapa edo grafikoen biez azalduta etorri.
- Eskuratutakoaren artean garrantzitsuena aukeratzea
- Aukeratutakoaren artean ideiak ordenatzea, eskemetan, eduki mapetan
- Mapen bidez ematen den informazioa, jasotzea ,ordenatzea irizpide baten arabera, eta testu idatzi bihurtzea

Jarduera honetan ikastaldek liburutegian edo-eta ordenadore gelan egingo du lan, kontsulta materiala behar izango baitu.

10. jarduera: Zer dakit eskolan mintzatzen diren hizkuntzez? (saio 1 eta erdi)

Jarduera honek 3 helburu beteko lituzke.

- 1.Eskolako hizkuntzei buruz zerbait gehiago jakitea, gero ikaskideei azaltzeko.
- 2.Eskolako hizkuntzen hedapen geografikoa mapetan irudikatzea
- 3.Behar duten informazioa zenbait informazio iturritatik eskuratzea.

Prozedurak

Eskolako hizkuntzei buruz jakin dezaketena hain zabala denez, jakintza arloa mugatuko diegu .

Behaketarako txantiloian zenbait galdera proposatuko diegu, eta ikasleak taldeka antolatuta, proposatzen zaizkien helbidetan,erantzuna bilatzen saiatuko dira.

Estatu batean hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen dela, hizkuntza bateko hiztunak zenbait estatutan banatuta daudela, giza taldeek hizkuntza ofizialez gain, euren harremanetarako beste hizkuntza bat erabiltzen dutela.,ondorio horietara heltzeko mapez baliatuko dira. Mapetan eta hizkuntza bakoitzak kolore batez adierazita, hizkuntzen hedapen geografikoa isladatuko dute.

Mapetara begiratuz batera, eta beti ere irakaslearen laguntzaz, ondorioetara heltzeko txantiloiak eskatzen duena betetzeko gai izango dira.

Taldean egiteko lana bukatu da, eta orain banaka, eskolako hizkuntzez ikasi duena testu laburrean azalduko du.

Ebaluatzeko balio izango du

Idazlan laburra egin baino lehenago, Ikusten bada, ideiak argi geratu ez direla , ondoko txantiloia erabiltzea proposatzen da.Honetan, landutako ideiak beste era batean adierazita , berriro ematen direlako.

Nire eskolako hizkuntzez ondoko hauek dakizkit

Ebaluaketa –txantiloia

Badakit	Nire eskolako hizkuntzak				
	Euskara	Gaztelera	Frantsesa	Ingelesa	Beste hizkuntza
Zein gune geografikotan mintzatzen den, eta ondoko hauek direla					
Zenbat hiztun dituen, eta hauek direla					
Zenbat estatutan mintzatzen den, eta hauetan mintzatzen dela					
Estatu horietan zein hizkuntza gehiago mintzatzen diren, eta hauek direla					
Horietatik zeintzuk diren ofizialak, eta hauek direla					
Zein den hizkuntza horren jatorria, eta hau dela					
Zein hizkuntza-familiatan kokatzen diren, eta ondokoetan kokatzen direla					

Euskal herrian euskara estandarraz gain, euskalkiak ditugula, eta hauek direla					
---	--	--	--	--	--

11. jarduera : Euskararen bilakaera (3 saio)

Idatziz zein ahoz azaltzen diguten informazioa, ulertzen, garrantzitsuena aukeratzen, aukeratutako irizpide baten arabera ordenatzen saiatuko dira jarduera honen bitartez.

Horretan trebatu ostean, mapen bidez azaltzen den informazioa, idatziz azaltzen saiatuko dira.

Testuek emango digute euskararen bilakaeraren berri.

Prozedura

Testu idatzia ematen zaie, testua ulertu ostean, handik informazio garrantzitsuena aukeratzeko, irizpide jakin baten arabera ordenatzeko, eta aurreko pausoei jarraituz, eskema batean gauzatzeko.

Gauza bera egingo dute ahozko ekoizpenarekin.

Gaiarekin lotuta dagoen entzumena jarri baino lehen, entzumena bideratzeko kontrol txantiloia banatuko zaie.

Irakurkizunak kontuan dituztelarik, entzumenarekin arituko gara. Horren ulermena, egia edo gezurra aukeratzeko txantiloari esker neurtuko da.

Ulermenetik ideia nagusiak ateratzea zaila denez, geuk emango dizkiegu ideia nagusiak, eta eurek, hierarkia adierazten duen eduki mapan kokatuko dituzte.

Mapetan agertzen den informazioa, jaso, ordenatu eta eskeman gauzatu dute.

Eskema hori gidoi gisa erabilita eta proposatzen zaizkien lokailu eta testu antolatzaileak erabiliz, mapak adierazten dutena idatziz azaltzen saiatuko dira.

Eginda duzuen eskema zuzentzeko erabili beheko txantiloia.

Eskema Zuzentzeko txantiloia
Lehenengo testuari dagokion eskema
 <p>1. Zer da euskara?</p> <p>2. Euskararen jatorri genetikoaren hipotesiak.</p> <p>a. eusko-iberiar</p>

b. eusko- kaukasiar

c. eusko-berberiar

3.Euskararen hedapena antzinatean.

4.Euskarak inguruko hizkuntzekin izandako harremana

a.Iberiar penintsulako hizkuntzak

b.Europa iparraldeko hizkuntza indoeuroparrak

c.Erromatar garaiko eta kristau aroa hasierako, latina

d.Erdi aroko erromantze jaioberriak

-okzitaniera

-gaskoia

-aragoiera

-gastelania

-nafar erromantzea

e. Gaur egun

-gastelania

- frantsesa

f.Etorkizunean

-ingelesa?

5.LAN- SEKUENTZIA

Hurbil gaitzen informazio iturrietara

Lan-sekuentzia honen helburua hiztegi soziolinguistikoa osatzea da. Horretara heltzeko, hiztegi motak bereizi behar dira, hainbat testutatik, hizkuntza eta hitzunen eremuko hitzak bildu, eta esanahia bilatu behar da. Bukatzeko hitzen osagaiei erreparatuz, lexiko sorkuntzarako bideak aztertuko dira

Idatzizko azalpena egiterakoan, gelako hiztegi soziolinguistikoa, tresna baliagarria izango da. Ikasleak honi esker, adituaren paperean sartuta, hitzaren azalpen zehatzagoa emateko gai izango baitira

12. jarduera:Hiztegi motak bereizten.Hiztegiz hiztegi (saio 1)

Jardueraren helburuak ondoko hauek lirateke.

1.Informazio-iturrien artean hiztegiak aintzakotzat hartuz , euskaldunok honetan dugun eskaintza aztertzea.

2. Ikastetxeak egiten duen eskaintza aztertzea

3.Hiztegi guztietatik, geurea egiteko eredia aukeratzea

Prozedurak

Ematen zaien teoria irakaslearen laguntzaz aztertuko da
Horren inguruan hausnarketa egin ostean, ikastetxeko liburutegira joango lirateke

Hemen, hiztegi motak zerrendatzen duen txantiloia erabiliko dute, eta honela jakingo dute ikastetxeak dituen baliabideak zeintzuk diren

13. jarduera: Hainbat testutatik hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak biltzen (saio 1)

Jarduera honen helburua zera da: zenbait testutan hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak bereiztea, eta zerrendatu ostean esanahia bilatzea
Hitz horiek, gelako hiztegi soziolinguistikoa osatzeko balioko dute

Prozedura

Talde bakoitzak bi testu hartuko ditu, eta hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak bereizi ostean , euren hitzekin, hitz horien esanahia ematen saiatuko dira
Gero, euren definizioetatik hiztegiak dakarren definizioetara igaroko dira.
Azken hau burutzeko, hizkuntza edo hiztunen eremuko hitza dagokion definizioarekin lotzen saiatuko dira.

14. jarduera: Lexiko sorkuntzarako bideak (saio 1)

Hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak bildurik daudela, hitz horiek sortzeko bideak aztertuko dituzte; hau da, lexiko sorkuntzarako bideen inguruko hausnarketa egingo dute

Prozedura

Zenbait hausnarketa egiteko txantiloia erabiliko dute.
Hau burutzeko irakaslearen laguntza ezinbestekoa da.

Material osagarria:Eskola gramatika
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Ostadar

15 jarduera: gelako hiztegi soziolinguistikoa (saio 1)

Jarduera honen helburua gelako hiztegi soziolinguistikoa egitea da.

Prozedura

Hiztegiko sarrerak eskolako lau hizkuntzetan adieraziko dira, baina esanahia hizkuntza batean baino ez da azalduko; hain zuzen ere,unitatea lantzen den hizkuntzan; euskaraz edo gazteleraz

Fitxaren formatoa irakaslearen materialean agertzen da

6.LAN- SEKUENTZIA

Informazio-panela gauzatzen

Informazio-panela garatzeko momentua heldu denez, lan-sekuentzian zehar, eta horretara heltzeko pausoak emango dira

Eman beharreko pausoak hauek direlarik: Kontestualizazioa, plangintza, testualizazioa, berrikusketa, eta ebaluaketa.

Pauso bakoitza jarduera batean gauzatuko da.

16 jarduera:Informazio panelaren kontestualizazioa (saio erdi)

Jarduera honen helburua zera da: azalduko den informazioa zein komunikazio egoeretan sortzen den zehaztea.Honek garrantzi handia du testuaren egokitzapenerako

Prozedurak

Irakaslearen laguntzaz, informazio-panelaren komunikazio egoera zehazteko ematen zaien laukia bete beharko dute

17 jarduera:Informazio-panelaren plangintza (saio 1)

Jarduera honen helburu informazio-panelaren plangintza egitea da.

Prozedura

Eginkizun hau burutzeko bi ekintza egingo dira; bata, informazio panelaren krokisa edo maketazioa egitea izango da, eta bestea, testu idaztia mamitzeko, informazioa aukeratzea informazioa antolatzea.

Informazio-panelean azalduko den informazioa antolatzeko hurrenkera-sekuentzia hartuko da aintzakotzat, beraz ondoko txantiloia baliagarria gerta dakizuke.

Hurrenkera –sekuentzia					
Ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Hurrenkera-sekuentzia batean garrantzirik gehien duenetik gutxienera edo goian aipatutako irizpide jakin baten inguruan biltzen da informazioa. ➤ Garrantzi-maila berekoak dira informazio guztiak. 				
Baliabideak	<p>1. Elementu tipografikoa Ideiak ordenatu eta enumeratu egiten dituzte eta baita informazio garrantzitsua edo berria markatu ere.(Kohesio lortzeko paper bikaina egiten dute. Gogoan izan ,hurrengo jarduera burutzeko beharrekoak izango baitzaizkizue.Testuaren testualizazioan ,hain zuzen ere)</p>				
	<table border="1" style="width: 100%;"> <thead> <tr> <th style="width: 50%;"><i>Letra motak</i></th> <th style="width: 50%;"><i>Sailkapenak</i></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="vertical-align: top;"> <ul style="list-style-type: none"> -Letra mota normala -Letra mota lodia -Letra mota etzana -Letra mota lodia eta etzana -Azpimarra -Letra mota romanoa -Letra larriak -Tituluak -Azpitituluak </td> <td style="vertical-align: top;"> <ul style="list-style-type: none"> • Puntuen bidez • • 1. Zenbakien bidez 2. 3. a) Letren bidez b) c) </td> </tr> </tbody> </table>	<i>Letra motak</i>	<i>Sailkapenak</i>	<ul style="list-style-type: none"> -Letra mota normala -Letra mota lodia -Letra mota etzana -Letra mota lodia eta etzana -Azpimarra -Letra mota romanoa -Letra larriak -Tituluak -Azpitituluak 	<ul style="list-style-type: none"> • Puntuen bidez • • 1. Zenbakien bidez 2. 3. a) Letren bidez b) c)
	<i>Letra motak</i>	<i>Sailkapenak</i>			
<ul style="list-style-type: none"> -Letra mota normala -Letra mota lodia -Letra mota etzana -Letra mota lodia eta etzana -Azpimarra -Letra mota romanoa -Letra larriak -Tituluak -Azpitituluak 	<ul style="list-style-type: none"> • Puntuen bidez • • 1. Zenbakien bidez 2. 3. a) Letren bidez b) c) 				

2. **Puntuazio-markak.** Testu argiak idazteko, garrantzi handia du egoki puntuatzeak.Puntua,bi puntuak..ondo erabiliz,igorleak hobeki adierazten ditu ideiak, eta irakurleak errazago irakurtzen du .Izan ere, testuaren zatiak mugatu eta mailakatu egiten dira puntuazioaren bitartez.

.Puntua

- Paragrafo zein perpaus baten bukaera markatzeko erabiltzen da. Aurreko perpausarekin segida estua baldin badago, puntu eta jarrai egiten da. Aldiz, ideien progresioan pauso berri bat ematen denean, hau da, paragrafo berri bat sortzen denean, puntu eta aparte .

Bi puntuak

- Enumerazioei sarrera emateko
- Ideia bat esplikatzekeo
- Kausa-ondorioa lotura adierazteko

Koma

- Elkarren segidan doazen maila bereko elementuen artean
- Antolatzaileak mugatzeko
- Perpaus nagusiaren eta osagarrien artean

18 jarduera:Testualizazioa (saio 1)

Jarduera honen helburua azalpen testuaren testualizazioa delarik , testu egokia sortzeko zenbait hausnarketa proposatzen dira.

komunikazio egoera honetan parte hartuko duten elementuen ezaugarri batzuk.

- **Igorlea.** Aditua, azalduko den gaien jantzia, edo behintzat hartzaileak baino gehiago dakiena. Horrez gain,informazioa objetiboki azalduko du, balorapen subjetoak saihestuko ditu. Horregatik, igorlea 3.pertsonaren atzean ezkututzen da.Hizkuntza denotatiboak. Kasu honetan, talde kideok zarete igorleak; hortaz zuei dagokizue hartzailearen ezagutzetara egokitzea; hartzaileak jakin dezakeen informazioa saihestu, eta testuan emandako kontzepturen bat hartzaileak ez duela ezagutzen sumatuz gero, hainbat bitartekoren bidez , haren esanahia argitu.

Hitzen esanahia argitzeko bitartekoak

- **Hau da, hots, edo...**Bezalako antolatzaileen bidez,kontzeptu ezagunena eta haren esanahia argitzeko edo zehazteko ematen den beste adierazpideak elkartuz:
Senarrak, hau da, ezkontideak...

- Kontzeptu ezagunaren ondoren, haren esanahia argitzeko edo zehazteko ematen den adierazpidea **aposizioan** jarriz.
Bi motatako aposizioak daude:
 - **Murrizgarriak** Bi izen elkarren segidan daude:Izen berezia (esanahia zehaztu nahi dugu) eta izen arrunta (esanahia zehazten duena).Bi izenen artean IS bakarra osatzen dute.Deklinabide kasu-marka izen arruntak darama soilik Euskal hiztun kopurua handitzen ari da **Bilbo Bizkaiko hiriburuan**
 - **Ez-murrizgarriak.**Aposizio era honetan bi IS egon ohi dira, bigarrenak lehenengoaren esanahia argitzen edo zehazten duelarik. Aposizioan doan izen sintagma koma artean idazten da, eta deklinabideko markarik dagokionez, aposizioak ezin bestekoa badu ere, biei jartzea da egokiena
Hiztun baten ama-hizkuntzak, haurtzaroan gurasoengandik ikasitakoak...

- **Hartzailea.**Azalpen testua eskuratuko du informazioa jasotzeko. Gehienetan, testuan, ez da bere aipamenik egiten.

19 jarduera:Berrikusketa (saio 1)

Jarduera honen helburua azken zuzenketa egitea da
Informazio-panela pasabideko horman jarri baino lehen egin beharreko lana

Prozedurak

Horretarako, kontrol-orria erabiliko dute.

Azken zuzenketak egin eta testua ondo orraztu ondoren, erakusteko moduan egongo da.

Honek balioko du , alde batetik ideiak finkatzeko, eta , bestetik, autoebaluaketarako
Lan hau jatorriko taldean burutuko da.

20.jarduera:Ebaluaketa (saio 1)

Jarduera hau kanpoko ebaluaketa izango da, informazio-panelaren garapenean parte hartu ez dutenek ebaluatuko dute.

DENBORALIZAZIOA

LAN- SEKUENTZIAK	JARDUERAK	DENBORA
	O. Motibazioa eta negoziazioa	Saio 1
1. Hizkuntzaren erabilpen eremuak bereizten.	1. Komunikazio egoerak eta erabilpen eremuak 2. Testuak eta erabilpen eremuak 3. Ikasketan erabilpen eremuko testuak	2 saio
2. Informazio-panelak aztertzen	4. Informazio-panelen egitura 5. Informazio.-panelaren testu idatzia	2-3 saio
3. Gure eskolako hizkuntza-errealitatea	6. Eskolako hizkuntza errealitatea aztertzen 7. Euskararen egoera 8. Informazio jasotzen 9. Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak gogoratzen	6 saio
4. Eskolako hizkuntzak: Zer dakit eurretaz?	10. Zer dakit eskolan mintzatzen diren hizkuntzez? 11. Euskararen bilakaera	4 saio
5 Hurbil gaitzen informazio iturrietara	12. Hiztegi motak bereizten.Hiztegiz hiztegi 13.Hainbat testutatik hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak biltzen. 14.Lexiko sorkuntzarako bideak.Hitz elkartuak eta eratorriak. 15. Gelako hiztegi soziolinguistikoa	4 saio
6. Informazio-panela gauzatzen	16.Informazio-panelaren kontestualizazioa 17. Plangintza 18 .Testualizazioa 19.Berrikusketa 20.Ebaluaketa	4-5 saio